

# ZUMARRAGAKO OPORRAREN ERAKASPENAK

Ezin diteke esan, egia aitortzeko, Zumarragako opor luzean oso gauza harrigarriak ikusi dugunik. Aspaldidanik genekizkien gauzak gertatu dira berriz ere gure begien aurrean : kapitalismoaren saldukeria, kapitalisten arteko alkartasuna, langileen ezintasuna, euskaldun sozialismoaren hutsunea. Zumarragan gertatu danak, halere, oso garbiki begietara ditu gure egoeraren giltzarriak ; eta arreta piska batez oharraztea on izan ditekeala uste dugu.

Alde batetik — hasteko — oso gertakari eder eta pozgarri bat ikusi dugu Zumarragan : alegia, euskal langile-klasea, legezko sindikatorik gabe egonda ere, ongi xamar alkaturik, Orbegozok kanporatuak defenditzeko gertu azaldu zaigu. Eta ez hitzetan bakarrik : harrigarria izan da egiazki langilerian bertan Euskal Herrian bildu dan diruketa gaitza. Hain zuzen ere, herri-laguntza hau izan da diru-laguntza nagusia. Klasetasun-giro on baten neurri dugu hori.

Anaitasun-giroa, halere, ez da hortan gelditu. Oporrak eta lan-etenuneak oso zabalak izan dira Euskal Herri guzian (49 lantegitan gutxienez). Jende-bilketak ugariak izan dira nun-nahi, eta herriak ausarki erakutsi du zapalketarekiko bere gorrotoa.

Euskal ikasleek batera jokatu nahi izan dute Bilbon eta Donostian, oporraz eta kale-bilketez (Gudu-Gobernuaren aurrean batez ere). Hori oso inportantea izan da, gure ustez, ikasle-langile soziologi-multzo bultzatzaile berria Euskal Herrian ere mamitzen hasia baita, Europako herri askotan bezela. Beren klase-jatorria ukatuz, ikasleek sozialismo-runtz abiatu nahi dute, eta langileekin topo egiten dute.

Gure herriak, bestalde, bildurra galdu du arrunt ; eta españar polizia ikusi dugu kikiilduta eta burua galduta. Ernanin zokoraturik ikusi dugu, Donostira laguntza eskaka. Eta Erandion, irakurleak dakien bezela, estaziora bildu zan igeska ; eta han, ikaraturik, tiroka hastea erabaki zuen, zauritu eta hil batzuk ekarriaz. Gertakari lazgarri honek

ongi erakutsi du poliziaren zapaldu-beharra : bestela herria laister nagusituko litzaiokeala gauza nabarmena zaio-ta. Erandioko hilketa beltzak garbi utzi du, era berean, frankismoaren odol-oinharria : « pakea » bedeinkatzea, ala tiroka ibili beharra ! Horra hor Españaako gobernariek orain dala 34 urte proposatzen diguten hautakizuna...

Euskal Herria urrupatzen eta zapatzen duen kapitalismoak, bestalde, agirian utzi du bere izana. Istilua Orbegozok sortu zuen. Madrilleko gobernuak, zernahi itxura eginagatik ere, Orbegozorekin batera prestatu zituen poliziaren jokabideak. Eta Urtarrilaren 12-an Orbegozok berak esan zion poliziari nor detenitu behar zuen eta nor ez, nor ziran « saltsa-nahastaleak » eta nor « langile onak » ; eta, hortara, hamalau langile gartzelara eramanez, oporraren bukaera azkartu zuen. Kapitalismoa eta fazismoa, gure burgesia haundiaren saldukeria eta Españaaren inperialismoa, alkarren laguntzaile gisa agertu zaizkigu (alkarren laguntzaile eta zutarri baitira !).

Elizaren jokabidea oso izan da gogoangarri. Alde batetik, eta hau garbiki, behereko elizarena ikusi dugu : Zumarragako eta Urretxuko apaizek hasieratik hartu dute oporlarien alderdia. Parrokiarte-batzordea sortuaz, Apezpikuaren agindu batzuei kasorik ez egiñaz, langabetuentzako dirua bilduaz, Orbegozori bereak eta asto beltzarenak entzunaraziaz, herrietako apaiz xeheak gure herrikideen alde ikusi ditugu. Donostiako Apezpikua, aldiz, mila jokabide maltzur eta ilunetan ikusi dugu ; eta batzutan — eliza hustarazteko agindua ematean, gonbarazio batez — guztiz Madrilleko gobernuaren morroin. Berriz ere, beraz, elizaparato ofiziala gure herri zapalduaren kontra ikusi dugu (Apezpikuak bere erabakiak Orbegozorekin eta gobernuarekin hitzegin ondoren hartu zituela ez dago zalantzan jartzetik) ; baina gure herriarengandik hurbil bizi diranak, berriz, gobernuaren eta kapitalisten kontra. Haue txek dakite hori ongienik ! Eliz-Agintaritzak, benetan, eta bėti bezela, herriaren kontra eta agintarien alde jokatu balu bezela. Elizan dagoen krisi nabarmena ez bide da aski Vatikanok aspaldidanikako bere politikeria lotsagarri eta beltzari aldegitiko. Madrilleko gobernuari irribarre egin ahal izateko, apaizak alde batera utzi ditu. Krisia, hortara, sakondu besterik ez da egingo ; eta honek ondorio sakonak izango ditu eskierki gure herriaren sinisteetan eta erlijio-jokabideetan.

Baina ezkertar abertzale geran guzientzako, beste gertaera bat izan da garrantzitsuena behar bada. Alegia, hasieratik azkeneraino, nazio-askatasun-nahia eta klase-burruka-nahia alkarrekin loturik agertu diralako. Ez gera gauza izan, halere, euskaldun sozialistok (egia aitor dezagun) Orbegozoren gertaerak euskaldun modura munduaren begietara agertzeko. Ikusi diran orririk gehienak, eta kanpo aldera hedatu diran iritziak, inperialismo hutsean oratuak izan dira maizegi : « ezker » aldetik, bereziki, sozial-imperialismoa ikusi dugu gogor. Oraindik ere españar inperialismoak ez bide du ideiaz aldatzeko asmorik txikienik ere, ez eskubi aldedik eta... ez « ezker » aldetik ere !

Halere, gertaerek garbi erakutsi dute hasieratik beren funtsezko osotasuna : Orbegozo-eneko oporra eta Arrizabalagaren heriotza-pena ia batera gertatu dira, alkar azkartuz ; eta zail da bi fenomenuen ilarak berezten. Ekintzan ari diran langileek ez dute sustraiezko diferentziarik ikusi ; eta Erandio, Zumarraga eta Arrizabalaga giro berberaren sorkari gisa agertuko dira euskal kondairan.

Honen garrantzia frankistek berek somatu bide dute ongienik. Eta egoki eta zorrozki esan zuen Donostian Polizi-Buruzagiak gutxi gora behera : « Ya sabemos que detrás de todo esto están los comunistas. Pero eso no nos basta para intervenir. Pero si también los separatistas se mezclan en ello, entonces el orden público exigirá nuestra intervención ». Geuk ere gauza bera uste !

Behin eta berriz, beraz, garbiago ikusten dute kakoa etsaiek guk baino. Alegia, ABERTZALETASUNAK eman dizaioke gure arazoari eta klase-burrukari berari behar duen erreboluziotasuna ; ez « marxismo-leninismo » abstrakto (= españazale) batek. Gure herrian abertzaletasunak neurtzen du erreboluziotasuna. Besterik esatea inperialismo hutsa da ; eta poliziak guk baino hobeki daki.

Horregatik debekatu zituen Donostiako gobernadoreak Eguberri bezperan bai Jaiotzak eta bai Olentzeroak. Nahiz hauek folklore hutsa izan, abertzaletasunaren ispilu edo gordailu diran neurrian, arriskubide bihur ditezke zapaltzaileentzako. Eta badakite. Nahiz Zumarragako gertaeretan, zoritxarrez, espainiar sasi-ezkerra itxuraz nagusi agertu !

Honi buruz, lotsagarria izan da berriro ere sasi ezkertar inperialisten jokoak. Hauen ideologilari ezagun batek hau esan zuen Donostian : « Zumarragako arazoan, euskaldunak izan dira urde-zerri guziguziak, Orbegozo buru ». Zertan gera, ordea ? Zer adierazi nahi da esaera bitxi horren bidez ? Euskalduntasuna dala eskubikeriaren kakoa ?

Hots : 1) Madrilleko gobernuak, gure kuarteletako armada-buruzagitza, eta Euskal Herriko aparatua ia osoki, kanpotik ekarriek, izendatuek eta lagunduek osatzen dituzte. 2) Arrazakeria baldin bada (eta dudarik gabe bada, eta chauvinismo farragarritzat salatuko dugu berriz) euskaldunok, euskaldun generalak, onak, prestuak eta santuak gerra ; era berean, arrazakeria hutsa da, euskaldunok, euskaldun generalak, gaistoak, alukitak, eskuindarrak eta kapitalistak gerra. 3) Euskal Herriko ezkerria azkarrago ez izatea ez dator inondik ere gure « arrazako » eskubikeritik, ezkertar eta espainiar sozial-inperialismo amorratutik baizik. Gerra aurretik eta gerra ondoren, espainiar alderdi ofizialeko sozialistak eta komunistak, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean, ez dira inoiz gauza izan, eta gaurtxe ere ez, ez espainiar ez frantziar inperialista ikuskeretatik irtetzeko : gure herrian « beste

probintzia bat » ikusiz, eskubi aldera joan dira, eta eskubi aldera botatzen dituzte euskaldun aurrerazaleak, gure egiazko eginkizunetatik urrunarazten.

Hori egia izanagatik ere, garaia da, garaia dugu hobe, euskaldun sozialistok gure herriak behar duen euskal sozialismoa zabal eta indar dezagun. Eta hau lortuko badugu, oraindik hasi beharra dago.

Gure herriak ez du besterik eskatzen.

BRANKA.